



Lehen Hezkuntzako 5. mailarako **Erlíjio katolikoa** liburua
Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza
Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence**
Ruizen zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

PROIEKTU DIDAKTIKOA

José Luis Alzu Goñi

TESTUA

Vicente Camacho Díaz

Fernando Cordero Morales

Marta Huelva Olías

Carmen Pellicer Ibarra

Francisco Javier Salguero Gómez

Martín Varela Dávila

IRUDIAK

Cristina Losantos Sistach (unitateak)

Esperanza Martínez Molina (mapak)

Carlos Fernández del Castillo (irakurgaiak)

EDIZOA

Joseba Santxo Uriarte

Ainhoa Basterretxea Llona

Carmen Ríos Collantes de Terán

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo Uriarte

Maite López-Sáez Rodríguez-Piñero

Edukien mapa

UNITATEA	HASIERA	BIBLIAKO KONTAKIZUNA	INFORMAZIOA
1 Erlijioen lantegia	6	• Mesopotamiako erlijioa. • Antzinako Egiptoko erlijioa. • Greziako eta Erromako erlijioa. • Antzinako Israelgo erlijioa.	
2 Bizitzaren zentzua	10	Gutuna Ruandatik. • <i>Gazte aberatsa.</i> • <i>San Pauloren irakaspenak.</i>	Gure bizitza orientatzen.
3 Jainkoaren bidera irtetea	20	Urrats handia gizadiarentzat. • <i>Jainkoaren eta Abrahamen arteko ituna.</i> • <i>Gorespen-abestia.</i>	Bibliako Jainkoa.
4 Jainkoaren jakinduria	30	Non dago jakinduria? • <i>Joben sufrimendua.</i> • <i>Jakintsuen hitzak.</i>	Jakinduriatzko liburuak.
5 Jesus, Jainkoa eta gizona	40	Nolako zura, halako ezpala. • <i>Jesus basamortuan.</i> • <i>Jesusen eta bere Aitaren arteko harremana.</i>	Jesus Nazaretekoa.
6 Jesusek bakea eta poza dakartza	50	Bakearen Oroimenezko Parkea. • <i>¡Jesus piztu egin da!</i> • <i>Jesus ikasleei agertu.</i>	Piztueraren poza eta bakea.
7 Eliza gara	60	Hamaika aldiz kontatutako historia. • <i>Apostoluen misioa.</i> • <i>Apostoluentzako hitzaldia.</i>	Elizaren historia.
8 Denen zerbitzura	70	Zeruan gora! • <i>Jesusek ikasleei oinak garbitu.</i> • <i>Zazpi ikasle aukeratzea.</i>	Elkarri zerbitzatzeko eskatzen digu Jesusek.
Otoitzak	82		
Bibliako irakurgaiak	84		

Iturburu proiektua
Erljio Katolikoa
arloko curriculum
berriari jarraituz sortu da
(Ebazpena, 2015eko
otsailaren 11koa), 2015eko
otsailaren 24ko BOEn
argitaratua.

ERREPORTAJEA

MUNDU HOBE BATERANTZ

Zoriontsu
bizi nahi dugu.

- Benetako zoriontasuna lortzeko bidea aurkitzea.
- Nork bere burua hobetzeaz eta zoriontsu izateaz gogoeta egitea.

Jainkoa gurekin.

- Jainkoa aurkitu duten pertsonen testigantzen berri jakitea.
- Otoitza Jainkoarekin hitz egiteko bidetzat aintzat hartzea.

Gizakiaren
jakinduria.

- Jakinduriaz jokatzeko, munduak dituen arazoak konpontzeko.
- Herri-jakinduria balioestea.

Jesusen
irudia.

- Fedea kemenez defendatzea.
- Jainkoaren esana betetzeak dakartzan zailtasunez jabetzea.

Zorionekoak
bakegileak.

- Elkarrekin senide modura jokatzeko ikastea.
- Eskolan bizikidetzat sustatzeko plangintza bat egitea.

Bideak urratzen.

- Desberdintasunak errespetatzea.
- Adiskidetasun-bideak aurkitzea.

Besteen alde
bizi gara.

- Ebanjelioa familia-giroan bizitzea.
- Besteen zerbitzura jartzea.

Oinarrizko gaitasunak

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoren. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Arloko gaitasunak

-  Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
-  Matematikarako gaitasuna
-  Zientziarako gaitasuna
-  Teknologiarako gaitasuna
-  Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
-  Arterako gaitasuna
-  Mugimendurako gaitasuna

Zehar-gaitasunak


-  Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
-  Ikasten eta pentsatzeko gaitasuna
-  Elkarbizitzarako gaitasuna
-  Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
-  Izaten ikasteko gaitasuna

Ongi etorri

Kaixo, neska-mutilok! Hementxe gatoz berriro. Pozik, ezta? Aurtengoa oso ikasturte garrantzitsua da zuentzat, laster Lehen Hezkuntza bukatuko baituzue. Ordura arte, baina, gauza asko dituzue ikasteko, pertsona gisa hazten eta kristau gisa hobetzen lagunduko dizuetenak.

Aurten ere Paulo, Leire, Ekaitz eta Nekane, iaz ezagutu zenituzten lau adiskideak izango dituzue ondoan. Haien gidaritzapean, Jainkoa eta haren seme Jesus sakon ezagutzen jarraituko duzue, eta Elizak gaur egungo munduan egiten duen lan eskergaren berri ere jakingo duzue. Horrez gain, erlijio katolikoaren sinesmenei buruzko zuen ikaskuntza ere orientatuko dute gure lau adiskideek, horrela bizitzari eta bizileku duzuen gizarteari buruzko galderetako batzuei erantzun diezaiezuen.

Oraindik gure adiskideak ezagutzen ez badituzu, hona hemen aurkezpen labur bat.



Paulo Brasilen jaio zen, eta han bizi izan zen sei urte bete arte. Bere herrialdean portugesez hitz egiten da, baina Paulok eta haren bi neba-arrebek oso ongi hitz egiten dute euskaraz ere, haien aita euskalduna baita.

Paulo alaia, atsegina eta hiltuna da. Ikaragarri gustatzen zaio musika, eta oso ongi abesten du.

Ni Leire naiz,
eta hau Sultan da,
nire katua.



Leire taldeko alaiena da, bai eta jakin-min eta sormen handienekoa ere. Oso irudimen handia duenez, ikaragarri gustatzen zaizkio zientzia fikziozko eta abenturazko liburuak. Leirek ezin izan du sekula oinez ibili, baina hori ez da oztopo bere katua zaintzeko, ez eta lagunekin gozatzeko ere; milaka jolas eta abentura asmatzen dituzte elkarrekin.

Ni Ekaitz naiz.



Ekaitz oso mutil jakintsua eta arduratsua da, eta isil samarra. Oso ona da mahai-jolasetan, eta beti jartzen da atezain-postuan futboleko jokatzen dutenean. Irakurtzea ere gustuko du, bai eta egunean zehar gertatzen zaizkionak egunerokoan idaztea ere.

Eta ni, Nekane.
Nahi al duzu gure lagun
taldean sartu?



Nekane zazpiki samarra da, eta asko gustatzen zaio marraztea eta kirola egitea. Oso alaia da eta denek egiten dute barre berarekin, batez ere bere ahizpa txikiaren bihurrikeriez eta amonak kontatzen dizkion istorioez hitz egiten duenean.

Antzinaroko erlijioak

Antzina-antzinatik, bai bizitzari eta bai heriotzari zentzua aurkitzeko, gizon-emakumeok erlijioaren premia izan dugu.

Iraganeko sinesmen eta gurtza motek ez dute batere zerikusirik gaur egungoekin. Antzinaroko erlijioen berri jakiteko, gizakiok bi bide erabiltzen ditugu, nagusiki: batetik, zantzu arkeologikoak bilatu eta ikertzen ditugu, hala nola inskripzioak, hilobiak eta jainko-jainkosen estatuatxoak; eta, bestetik, geroagoko kulturek idatzitako idazkunak.

Antzinaroko erlijioak aztertzeko, alderdi hauek hartu ohi dira ardatzat:

- Erljio bakoitza sortu zeneko inguru, sasoi eta kultura.
- Sinesmenak: jainko-jainkosak, existentziaren zentzua, hil osteko bizia...
- Gurtza: tenpluak, irudiak, erritu eta zeremoniak, apaizak...
- Erljio-testuak: mito eta tradizioak, liburu santuak...

Mendebaldeko lehenengo erljio handiak Mediterraneo itasoaren ibar inguruetan sortu ziren, denboraren joanean sortuz joan ziren inperio ahaltsuen barruan ia beti.



Mesopotamiako erlijioa

Gaur egungo Irak dagoen lurraldean sortu zen Mesopotamia, Tigris eta Eufrates ibaien inguruan. Inperio handi hau duela lau mila urte baino gehiago loratu zen.

Mesopotamian, inperio handi bat sortu zen.


Idazkera-sistema bat ere asmatu zuten, **kuneiforme** izenekoa.



Naturako indarrekin lotutako **jainko-jainkosa** ugari gurtzen zituzten, hala nola **Eguzkia** (Shamash) eta **Ilargia** (Sin). Hil osteko bizian sinesten zuten.



Zigurat izeneko tenpluetan, beren jainko-jainkosei opariak egiten zizkieten. Arrapala luzeak zituzten piramide formako tenpluak ziren ziguratak.



Apaizak aztizat zeuzkaten, eta botere handiko taldea osatzen zuten.

Mitoak ahoz transmititzen zituzten, eta kreazioaren misterioak esplikatzeko zituzten haien bidez.

Antzinako Egiptoko erlijioa

Egiptoar inperioa gaur egungo Egipto dagoen lurraldean hasten eta Sudanen amaitzen zen. K.a. 3050. urtean sortu eta itzal handiko zibilizazioa izan zen, eta eragin handia izan zuen beste kultura batzuetan.

Nilo ibaiaren ibarrean, egiptoar inperioak jakintzaren adar guztiak landu eta loratu zituen. **Idazkera hieroglifikoa** asmatu eta erabili zuten, ideiak irudikatzen zituzten marrazkietan oinarrituta.



Hil osteko biziari buruzko **mito** ugaritan sinesten zuten, eta hildakoak momifikatzen zituzten. **Piramide** izeneko hilobi handiak eraiki zituzten, faraoiak bertan ehorzteko.

Egiptoarrak, jainko bakar batengan sinetsi zuten denbora-tarte batean izan ezik, **politeistak** izan ziren. Oro har, beren jainko-jainkosek giza gorputza eta animalia-burua izaten zuten. **Osiris** eta **Amon-Ra** ziren egiptoarren jainko nagusiak. **Faraoia** ere gurtzen zuten, jainkotzat zutenez gero.

Apaizen klaseak botere itzela zuen.



Greziako eta Erromako erlijioa

Grezia eta Erroma bi zibilizazio handi izan ziren, eta Mediterraneo itasoaren aldirietan sortu eta haziz joan ziren. Antzinaroko inperio garrantzitsuena Erroma izan zen.

Greziako zibilizazioa K.a. V. mendean loratu zen, eta Erromakoa, berriz, K.a. II. mendetik aurrera. **Demokrazia**, esaterako, Grezian sortu zen.

Literatura, zientzia, politika, artea eta erlijioa ere izugarri landu zituzten greziarrek.



Greziako erlijioa **politeista** zen. Jainko-jainkosak gizakiak balira bezala irudikatzen zituzten, nahiz eta hilezkorrak izan. **Zeus** zen jainko nagusia.

Erromatarrek greziarren jainko-jainkosak hartu, eta izena aldatu zieten. Jainko nagusiari **Jupiter** deitu zioten.

Erromako **enperadoreak** jainkotzat hartzen zituzten.

Greziarrek eta erromatarrek oso **tenplu** ederrak eraiki zituzten, eta bertan, jainko edo jainkosa baten irudia gurtzen zuten. Orakuluari etorkizunaz galdetzeraz ere joaten ziren tenplura greziarrak.

Gurtza **apaizek** zuzentzen zuten. Apaiz-lanetan ziharduten emakumeei **vestale** esaten zitzaien.

Ez greziarrek eta ez erromatarrek ez zuten liburu sakraturik, baina bai **mitoak**, ahoz nahiz idatziz transmititzen zituztenak.



Antzinako Israelgo erlijioa

Antzinako Israel herrialde txikia izan arren, bertako herritarren erlijioak, **judaismoak**, bizirik iraun du gaur egun arte. Kristautasuna ere judaismoaren baitan sortu zen.

Bai Israelgo herria eta bai judaismoa **Abrahamek** sortu zituen, huraxe aukeratu baitzuen Jainkoak bere herriaren aita izateko. Hori K.a. 1800. urtean gertatu zen, gutxi gorabehera.

Juduak **monoteistak** dira. Jainko bakarrean sinesten dute, eta gauza ororen hasieratzat eta bukaeratzat hartzen. Judaismoak Jainkoa irudikatzea eta haren izena esatea debekatzen du, errespetu-seinale modura.

Juduen liburu santu nagusia **Tora** da, Itun Zaharreko lehenbiziko bost liburuez osatua. Bai Jerusalemeko tenpluan eta bai **sinagogetan**, juduek liburu santuak irakurtzen eta irakasten zituzten.



Zer dakizu antzinako erlijioez?


Sinesmenak

1 Behatu 6. orrialdeko mapari, eta lotu hauek koadernoan. ★

- | | |
|--------------------------|----------|
| Egiptoko erlijioa • | • Asia |
| Erromako erlijioa • | • Afrika |
| Mesopotamiako erlijioa • | • Europa |



2 Hieroglifiko honek jainko baten izena ezkututzen du. Aurkitu eta esan nor zen.



3 Erlijio hauetako zein dira monoteistak? Aukeratu eta kopiatu zure koadernoan.

- ✓ Judaismoa. ✓ Egiptoko erlijioa. ✓ Kristautasuna. ✓ Greziako erlijioa.

Gurtza

4 Antzinaroko zer bi erlijioek eraiki zituzten piramide formako eraikinak? Azaldu zertan ziren desberdinak eraikin horiek. 🗣️



5 Greziar kulturako zer alderdi dira, zure ustez, Jainkoaren eta gizon-emakumeon arteko harremanaren ondorio?

6 Azaldu zer alde dauden erromatarren eta greziarren gurtza moten artean.

Testuak

7 Irakurri testu hauek, eta esan zer erlijiori dagokion bakoitza. ★

- Hasieran, Ra-k bizia eman zion bere buruari. Bakarrik sentitzen zenez, airearen jainko Shan eta hezetasunaren jainkosa Tefner sortu zituen. Raren malkoetatik jaio ziren lehenbiziko gizon-emakumeak.
- Guduari ekin aurretik, Didakles jenerala Zeusen tenplura joan zen, jainko-jainkosek beragandik zer nahi zuten esan ziezaion orakuluak.

